

## AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

# GAIA: ITXAROPEN AUZORAKO IGOGAILUA



2019ko otsailaren 7an, ostegunean, 18:30etik 20:00etara.

Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan.

Aretoa bete duten Legazpiko ia 60 bizilagunen parte hartzearekin, Agenda 21eko Foroaren aurtengo lehenengo lantegia egin dugu. Oraingoan jakin-mina eta interesa sortu du gaiak: Aizkorri kalea Itxaropen auzoarekin eta goialdearekin lotuko duen igogailua jartzeko proiektua eta proposatutako kokalekurako ikusi diren aukera desberdinak.

Agiri honetan saioaren gako nagusiak laburbiltzen dira, ondoko eskema jarraituz:

### EDUKIEN ESKEMA:

1. Parte hartu dutenak
2. Hasierako oharrak
3. Itxaropen auzora iritsiko den igogailua jartzeko proiektua: 3 aukera
4. Kontrastea parte hartu duten herritarrekin
5. Hurrengo urratsak, eskerrak ematea eta amaiera

# 1. PARTE HARTU DUTEN PERTSONAK

Guztira 57 herritarrek hartu dute parte -29 emakume eta 28 gizon-. Zerrenda ageri da ondoren baina horiei beste batzuk ere gehitu behar zaizkie. Hona parte hartzaileak:

## Herritarrak:

M<sup>a</sup> Cruz Lizarazu – Sonia Garcia – M<sup>a</sup> Carmen Eceolaza – Jesus Perez de Leceta Agirre – Jose Luis Martinez de Ilarduya – Jose Mari Azpeitia – Jesus Arranz – Maria Adoración Villas – Carlos Gonzalez – M<sup>a</sup> Pilar Dorado – Endika Soto – Cristina Lizarraga – Ignacio Oria – Esther Miranda – Juana Mari Izagirre – Jose Luis Solana – Juan Francisco Valbuena – Arantxa Pinedo – M<sup>a</sup> Paz Martínez de Ilarduya – Pilar Makibar – Jesus Lazkanoiturburu – M<sup>a</sup> Victoria Leyun – Pepi Agirre – Tere Izagirre – M<sup>a</sup> Isabel Saez de Nanclares – Jesus Arrazola – M<sup>a</sup> Jesus Araiztegi – Jon Cid – Julian Auzmendi – Rosa Mari Pinedo – Juan Luis Aseginolaza – Arantxa Ugarte – Lurdes Etxaniz (EILUZ) – Amaia Besanza – Unai Etxarri – Jose Beitialarrangoitia – Juanita Aseginolaza – Mariaje Mantxola – Socorro Aseginolaza – Pedro Agirre – Juanjo Zubillaga (Buztintegi) – Joaquin Azurmendi – Milagros Etxeberria – Mitx Markotegi – Manuel Fernandez (Nagusilan) – Begoña Cordoba. Eta izenak jaso gabe geratu ziren beste batzuk.

## Udal arduradun politiko eta teknikoak:

Koldobike Olabide (alkatea) - Erik Galvez (zinegotzia) – Oscar Valbuena (zinegotzia) – Alberto Bezunartea (zinegotzia) – Rakel Puente (zinegotzia) – Ruben Cañadas (udal arkitektoa) - Alonso Frances (udal arkitekto teknikoa) - Inma Hernandez (industria, merkataritza, turismo eta ingurumen teknikaria).

## Kanpoko talde teknikoak:

Borja Izaskun eta Cristina Burgos (Zebra Lab Arquitectura), eta Iciar Montejo eta Zorione Aierbe (Prometea, dinamizazio-lanetan).

Eskerrik asko guztioi! Interesgarria eta aberasgarria izan da iritziak eta ideia berriak partekatzea, aukerak zabalduz.

## 2. HASIERAKO OHARRAK

Ongietorria eman eta hasierako aurkezpena egin eta gero, Inma Hernandez teknikariak iraunkortasunarekin eta Legazpiko Agenda 21eko Foroaren jardunarekin zerikusia duten hainbat ohar eman ditu:

- 2018ko Olentzero Azokak oso harrera ona izan zuen.

2018ko abenduan egin zen Azokaren lehenengo edizioa eta hark eman zuena ekarri dugu gogora bideo bat ikusiz: <https://www.youtube.com/watch?v=wFM7t4Os1qY>

Udalak eta bertan parte hartu zuten dendariak egindako balorazioak oso datu positiboak eman ditu; ondorioz, 2019ko abenduan Olentzero Azokaren bigarren edizioa antolatuko da.

- Martxoak 7, photocall “Klima-aldaketak generoa du” Legazpin.

Martxoaren lehenengo astean klima-aldaketaren astea izango da Euskadin eta hor sartzen da ekintza hori.



- 2019rako prestatu den Legazpiko Agenda 21eko Foroaren egutegia eta programazioa. Aktaren ondoren dator egutegia. Aurten, urtarriletik abendura, 6 lantegi egitea aurreikusi da.

Eta segidan, lantegiaren gai nagusiari ekin diogu.

# 3. ITXAROPENERA IRITSIKO DEN IGOGAILUA JARTZEKO PROIEKTUA: 3 aukera

## Igogailuaren proiektua

Alonso Frances udal arkitekto teknikoak proiektua diseinatzeko erabili diren abiapuntuko irizpideak partekatu ditu Foroko kideekin:

- Abiapuntua: helburua Aizkorri kalea Itxaropen auzoarekin eta goialdearekin -Domingo Agirre plaza- lotzea da.
- Hauxe da Udalaren proposamena: Aizkorri kaleko botikaren ondoan dauden eskaileretan igogailu bat jartzea.
- Zonalde horren sekzioa aintzat hartuta, proiektu teknikoak hainbat kontu izan behar ditu kontuan:
  - Irigarritasuna: igogailuak bermatu egin behar du irigarritasuna.
  - Hirigintza, generoaren ikuspegitik eta herritarren segurtasuna, arrisku-puntuak ez sortzeko.
  - Ekonomia, hau da, esku hartzearen kostua.
  - Goialdean jabetza publikoko partzelarekin lotzea.



## 3 aukera

Horiek oinarri hartuta, Legazpiko Udalak leku horretan igogailua jartzeko egon daitezkeen aukera desberdinak azter ditzala eskatu dio Zebra Lab Arquitectura taldeari. 3 aukera aurkeztu ditu taldeak baina horietako bat aldez aurretik baztertu da, ez delako bideragarria ikusten.


Zebra Lab Arquitectura taldeko Borja Izaskun arkitektoak 3 aukera azaldu dizkie Foroko kideei eta fotomuntaketak erabili ditu horretarako.

### 1. AUKERA



- Aukera honetan, egin beharreko pasabidea motza eta erraza da baina, hala ere, aukera hau ez da bideragarria, igogailuaren dorrea ondoko etxeko hegoaldera ematen dituzten balkoi eta begiratokietatik oso gertu dagoelako eta eraikinaren teilatu hegala inbaditzen duelako.
- Beraz, aukera hori igogailua jartzeko egin den azterketan sartu bada ere, baztertu egin da bideragarria ez delako.

## 2. AUKERA



Bigarren aukeran igogailuaren dorrea fatxadaren lerroan dago, kaleari segida emanez. Horrela eginda, ez da herritarren segurtasuna eta genero ikuspuntutik arriskutsuak izan daitekeen kalezulorik sortzen. Pasabideak gaur egun dauden eskaileren geometria hartuko du, bertan dauden erakinen artean sigi-saga joanez. Jarraian aukera honen aldeko eta kontrako alderdiak aurkezten dira.

### Aldeko alderdiak:

- Herritarren segurtasuna bermatzen da eta ez dira gune gatazkatsuak sortzen genero ikuspegitik.
- Teknikoki irtenbide errazagoa da, euste-hormak daudelako eta dagoen eskailera botako delako.


### Kontrako alderdiak:

- Aukera honek zuzenean eragingo die Aizkorri kalea 12 eta 14ko bizilagunei. Dorreak eta pasabideak eraikinen fatxadak inbaditzen dituzte, eguzki gutxiago jasoko dute eta bista ere murriztuko zaie.
- Igogailuaren dorreak altuera hartzen du eta horrek inpaktu handia du kaleko fatxadan; dorre handi bat ikusiko litzateke udalerriko kokaleku berezi batean. .

### Beste alderdi batzuk, gainerako aukerekin alderatuta:

- Partzela pribatuko atea fatxadara eramatea proposatzen da, herritarren segurtasunerako arriskutsua izan daitekeen gune bat saihesteko.
- Hirugarren eta bigarren aukerek antzeko aurrekontua dute. Hirugarrenean pasabidea motzagoa da baina handiagoak dira eraispin-lanak eta euste-hormak egiteko lanak. Bigarrean pasabidea luzeagoa da baina eraispin-lan gutxiago dago eta euste-horma gutxiago ere.
- Aukera guztietan tarteko geldiyuna dago, igogailuak 10 metro baino handiagoko kota alde gaitzen duelako. Geldiyune hori gaur egun dagoen eskailerara iritsiko da, igogailuaren atzealdetik.

### 3. AUKERA



Hirugarren aukeran, igogailuaren dorrea kaleko fatxadatik 4,5 metro atzeratzea proposatzen da, igogailuaren atari-aurre txiki bat sortuz. Espazio hori behar bezala argiztatuta egongo da eta ez da segurtasun arazorik sortuko ezta genero ikuspuntutik ere. Pasabideak dauden eskaileren geometria hartuko dute inguruko eraikinen artean sigi-saga joanez. Jarraian aukera honen aldeko eta kontrako alderdiak aurkezten dira.

#### Aldeko alderdiak:

- Igogailuaren dorreak eragin txikiagoa izango du eraikiaren hegoaldeko fatxadan, azkeneko solairuko leihoa libratuz eta komunetako leihoen parean bakarrik geratzen da.
- Igogailuak ez du kalea hartzen eta kaleko fatxada-lerroa baino atzerago kokatuta, ez da nabarmen geratzen eta ez du gertuko ingurunean inpakturik sortzen.
- Gutxiago ukitzen dira lursailak eta mendi-hegaleko euste-hormak; beraz errazago da igogailua horrela jartzea..

#### Kontrako alderdiak:

- Atari-aurre txiki bat sortzen da. Espazio hori behar bezala argiztatu eta babestu beharko da, herritarren segurtasuna eta genero ikuspuntutik segurtasuna bermatzeko.
- Neurri txikiagoan bada ere, igogailuak eragina du Aizkorri kalea 12 eta 14 zenbakiko fatxadetan, eguzkia kentzen du eta balkoietako eta leiho txikietako bistak murrizten ditu.

#### Beste alderdi batzuk, gainerako aukerekin alderatuta:

- Partzela pribatuko atea fatxadara eramatea proposatzen da, herritarren segurtasunerako arriskutsua izan daitekeen gun bat saihesteko.
- Antzeko aurrekontua.
- Aukera guztietan tarteko geldiuena dago, igogailuak 10 metro baino handiagoko kota aldea gainditzen duelako. Geldiune hori gaur egun dagoen eskailerara iritsiko da, igogailuaren atzealdetik.

## 4. KONTRASTEAK PARTE HARTZAILEEKIN

3 aukerak aurkeztu eta azaldu ondoren, lehenbizi zalantzak argitzeko tarte bat ireki da. Segidan, tarteak eman duena bildu dugu:

### ZALANTZAK ARGITZEN

Zergatik Proposatu da igogailua jartzea eta ez arrapala mekanikoa?

- Batik bat, arrapala mekanikoak ez duela irisgarritasun-arazoa konpontzen –adibidez, gurpildun aulkia erabiltzen dutenen irisgarritasuna-.
- Baita arrapala mekanikoen mantentze-lanen kostua oso handia delako.

Nola zainduko da pasabidetik eta eskaileretatik gertu dauden etxeetako bizilagunen pribatutasuna?

- Motaren bateko gainestaldura bat jartzea pentsa daiteke.

Kultur Etxean badago igogailua, beharrezkoa da esku hartze hau?

- Zuzeneko galdera honi, taldeko gehienez baietz erantzun diote.
- Bestalde, Kultur Etxeko igogailua Urtatza aldeko bizilagunek erabiltzen dute gehienbat. Bigarren igogailu honek Itxaropen, Domingo Agirre,... eta inguru horretako bizilagunei erantzungo die.

Zer gertatuko da gaur egun dauden eskailerekin? Eta zer geratuko litzateke arrapalaren azpian?

- A priori, beheko zatia kendu egingo da eta baratzeetako irteerak goialdera bideratuko dira.

Nola planteatzen da goialdeko lotura?

- Pasabidea jabetza publikoko lurzorura lotzea bilatu da, oinezkoentzako leku segurua izan dadila bermatuz -espaloia-. Pasabidetik espaloi batera irtengo da. Espaloi hori egin beharko da Domingo Agirre plazara igotzeko.

Zalantzak argitzearekin batera, debatea sortu da aukera desberdinen artean. Horrezaz gain, proposamen berri bat sortu da eta Legazpiko Udalak aztertzeko konpromisoa hartu du.



## DEBATEA ETA PROPOSAMEN BERRIA

Aurkeztu diren 3 aukerek inpaktu handia dutela azpimarratu da.

- Zalantza handienak, igogailuak eta arrapalak Aizkorri kaleko eraikin mugakideetan -eta hiri-paisaian oro har- duten inpaktuengatik sortzen dira.
- Gainera, igogailua hegoaldean kokatzen denez, eguzkia kentzen dio ondoko etxeari.

Proposamen berria: igogailuaren kokapena aldatu eta elizaren parean -Apatxo liburu-dendaren alboan- jartzea.

Idea berri bat sortu da, antza denez orain dela urte batzuk udaletxean planteatu zena. Hauxe proposamena:

- Igogailua Apatxo alboan jartzea.
- Arrapalak -marra laranja hurrengo marrazkian- atzeko lursailak zeharkatuko ditu goialdera iritsi arte. Alderdi hori zehatzago aztertu beharko litzateke, aukera desberdinak egon daitezkeelako.
  - Hegal bat jartzea gaur egun eskailerak dauden tokian, arrapalak berdegunean egingo den espaloiarekin bat egin dezan –marra urdin jarraitua-.
  - Arrapalak gaur egun konpost egiteko gunerekin bat egin dezala bilatzea; kalea gurutzatu eta gaur egun dagoen espaloia aprobetxatu, oinezkoen pasabidetik berriro kalea gurutzatzeko –marra urdin etena-.
  - Edozelan ere, pasabidetik irteteen espaloia egitea bermatu beharko da, gaur egungo bidetik Domingo Agirre plazara iristeko.
  - Puntu honetan kale osoa oinezkoentzako egokitzea iradoki da, koexistentzia gunea izan dadin; Udalak uste du zonalde horretan dagoen autoak aparkatzeko dagoen eremua ia pribatizatzea izango litzatekeela hori.



Aukera berri horrek abantailak ditu botikan kokatzearekin alderatuz gero:

- Inpaktu txikiagoa inguruko etxeetan eta begi-inpaktu txikiagoa ere -Aizkorri kaletik nahiz goialdetik-.
- Goialdean ibilbide horizontalagoa du eta hori ona da gurgildun aulkia erabili behar dutenentzako. Apatxotik botikara kalea aldapa gora doala esan da; aldiz, ibilbide hori goialdetik lauagoa da.

#### 1. Aukeraren aldaera izan daiteke?

Azkenik, eta hasierako 3 aukerei dagokienez, igogailua atzerago bota daitekeen planteatu da:

- Horrela, eraikinekiko inpaktua murriztuko da.
- Edozelan ere, herritarren segurtasuna zainduz eta puntu beltzak ez sortuz.

Aurrekoa osatzeko, elkarrizketan honako ideiak hartu du indarra: aukera hobereana bilatzean hiru gauza baloratu behar direla: irisgarritasuna, herri-ikuskerak eta guztion onura. Eta ez erosotasuna bakarrik, erabiltzailearen/norbanakoaren ikuspegitik .

## 5. HURRENGO URRATSAK, ESKERRAK EMATEA ETA AMAIERA

Edozelan ere, Legazpiko Udalak proposamen berria aztertze konpromisoa hartu. Hortaz, bilera berri bat deituko du, guztion artean Legazpirako egokiena izan daitekeen aukera lantzeko, irisgarritasuna kontuan hartuz beti ere.

Bukatzeke, eskerrak eman behar dugu, parte hartze jendetsua, aktiboa eta eraikitzailea izan delako gaurkoa. Horrela bai, ahal da!

**ESKERRIK ASKO GUZTIO!!**

## 2019ko Egutegia - Calendario 2019

URTARRILA / ENERO							OTSAILA / FEBRERO						
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D
	1	2	3	4	5	6					1	2	3
7	8	9	10	11	12	13	4	5	6	7	8	9	10
14	15	16	17	18	19	20	11	12	13	14	15	16	17
15	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24
28	29	30	31				25	26	27	28			
							<b>1 saioa:</b> Itxaropenera igotzeko igogailua. <b>Taller 1:</b> Ascensor de acceso a Itxaropen.						
MARTXOA / MARZO							APIRILA / ABRIL						
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D
				1	2	3	1	2	3	4	5	6	7
4	5	6	7	8	9	10	8	9	10	11	12	13	14
11	12	13	14	15	16	17	15	16	17	18	19	20	21
18	19	20	21	22	23	24	22	23	24	25	26	27	28
25	26	27	28	29	30	31	29	30					
							<b>2 saioa:</b> Merkataritza ekintzailletza. <b>Taller 2:</b> Emprendizaje en el comercio.						
MAIATZA / MAYO							EKAINA / JUNIO						
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D
		1	2	3	4	5						1	2
6	7	8	9	10	11	12	3	4	5	6	7	8	9
13	14	15	16	17	18	19	10	11	12	13	14	15	16
20	21	22	23	24	25	26	17	18	19	20	21	22	23
27	29	29	30	31			24	25	26	27	28	29	30
UZTAILA / JULIO							ABUZTUA / AGOSTO						
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7				1	2	3	4
8	9	10	11	12	13	14	5	6	7	8	9	10	11
15	16	17	18	19	20	21	12	13	14	15	16	17	18
22	23	24	25	26	27	28	19	20	21	22	23	24	25
29	30	31					26	27	28	29	30	31	
IRAILA / SEPTIEMBRE							URRIA / OCTUBRE						
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D
						1		1	2	3	4	5	6
2	3	4	5	6	7	8	7	8	9	10	11	12	13
9	10	11	12	13	14	15	14	15	16	17	18	19	20
16	17	18	19	20	21	22	15	22	23	24	25	26	27
23	24	25	26	27	28	29	28	29	30	31			
30													
							<b>4 saioa:</b> Gaia definitzeke. <b>Taller 4:</b> Tema por concretar.						
AZAROA / NOVIEMBRE							ABENDUA / DICIEMBRE						
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D
				1	2	3							1
4	5	6	7	8	9	10	2	3	4	5	6	7	8
11	12	13	14	15	16	17	9	10	11	12	13	14	15
18	19	20	21	22	23	24	16	17	18	19	20	21	22
25	26	27	28	29	30		23	24	25	26	27	28	29
							30	31					
							<b>5 saioa:</b> Gaia definitzeke. <b>Taller 5:</b> Tema por concretar.						
							<b>6 saioa:</b> Gaia definitzeke. <b>Taller 6:</b> Tema por concretar.						